



**VITORIA-GASTEIZ HIRI HEZITZAILEA  
UDALEKO HEZKUNTZA JARDUERETAN  
EUSKARAREN PRESENTZIA  
ETA ERABILERA ZAINTEKO  
PROPOSAMENAK**



**Argitaratzailea**

Vitoria-Gasteizko Udala - *Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea proiektua*

**Egilea**

Ebete hizkuntza-zerbitzuak

**Diseinua eta maketazioa**

TaPuntu


**Argitaratze data**

2023ko urtarrila



# VITORIA-GASTEIZ HIRI HEZITZAILEA UDALEKO HEZKUNTZA JARDUERETAN EUSKARAREN PRESENTZIA ETA ERABILERA ZAINTEKO PROPOSAMENAK

- 1- Euskararen presentzia eta erabilera indartzea Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea proiektuan** ..... 5 or.
- 2- Jarduera euskaraz denean:**
- Helduei begirakoa denean ..... 9 or.
  - Haur eta nerabeei begirakoa denean..... 12 or.
- 3- Jarduera ez denean euskaraz**
- Euskarak ere izan dezala lekua ..... 15 or.
  - Favorecer la presencia y el uso del euskera en la actividad..... 16 or.





**Euskararen presentzia  
eta erabilera indartzea  
Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea  
proiektuan**

# 1 Euskararen presentzia eta erabilera indartzea Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea proiektuan

Gasteizen aurrerapauso handiak izan dira azken hamarkadetan elebitasunera begira. Gero eta jende gehiagok daki euskaraz ere, eta hainbat eremutan euskararen erabilera indartzen doa. Ba al zenekien gaur egun gasteiztarren erdiek ulertzen dutela euskara, eta kopuru hori handiagoa da gazteen artean; izan ere, 35 urte baino gutxiagokoen artean hamarretik zortzik ulertzen du, hau da, gazteen artean ia guztiek ulertzen dute. Euskararen erabilerari erreparatzen badiogu, Gasteiz da erabileran aurrera gehien egin duen hiriburua.

Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea proiektuko hainbat hezkuntza-jarduera euskaraz eskaintzen dira, gizartean gertatu den bilakaera horretara egokituta.



## Euskararen presentzia eta erabilera zainduz hiru helburu behintzat landu daitezke:

### 1 Haur eta nerabeen kasuan, aukerak ematea eskolaz kanpo euskara erabiltzeko eta laguntzea euskara bizipen eta gustuko egoerekin lotzen.

#### Kontuan izan

Euskaltegien eta hezkuntzaren eraginez Gasteizen euskararen ezagutza orokortzen ari da baina hiriko euskaldunen artean, gutxiengoa da ama-hizkuntza euskara ere baduena, eta kalean ere euskararen erabilera mugatua da.

#### Zergatik landu nahi da helburu hau?

Egoera soziolinguistikoaren ondorioz, haur eta nerabe askok benetako aukera gutxi izaten dituzte eskolaz kanpo euskara entzun eta erabiltzeko. Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzaile proiektuko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera zaintzen badira, aukera ematen zaie euskara eskolaz kanpoko eremuekin eta egoera atsegina eta dibertigarriekin lotzeko.

**Ama-hizkuntza euskara ere baduten 15 eta 29 urte arteko gazteak Araban %13 dira:**

<https://labur.eus/HmxWs>



## 2 **Jarduera euskaraz aukeratzen dituzten helduen kasuan, euskararen arnaguneak eskaintzea.**

### **Kontuan izan**

Euskaraz dakiten Gasteiztar askok gaur egun erabiltzen duten baino euskara gehiago erabili nahi lukete edo horretarako prest egongo lirateke egoera aproposa balitz. Hori erakusten du Euskaraldian hainbat eta hainbatek Ahobizi eta Belarriprest moduan izena emateak. Baina testuingurua ez da beti egokia:

<https://labur.eus/fFjpw>

### **Zergatik landu nahi da helburu hau?**

Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzaile proiektuko jarduerak eremu ezin hobeak izan daitezke euskaraz gustura eta eroso aritzeko eta euskarazko harreman berriak ere sortzeko.

## 3 **Jarduerak ez direnean euskaraz, euskarari leku bat eginaz minorizatua den hizkuntza bati lekua egitea eta hainbat pertsonari hizkuntzarekin gutxieneko harreman bat eskaintzea.**

### **Kontuan izan**

Gasteizen euskararen ezagutzak gora egin du eta azken urteetako bilakaera oso nabarmena izan da.

<https://labur.eus/LSyJL>

Euskara balio positiboekin ere lotzen den arren, oraindik aurreiritzi asko ez dira gaingitu: zaila da, txikia da, ahula da, eta abar.

### **Euskara zaila al da?**

(Ikusi hemen espero ez duzun erantzuna)

<https://labur.eus/TAY9M>

<https://labur.eus/65RNK>

### **Euskara txikia al da?**

<https://labur.eus/rg0n3>

### **Zergatik landu nahi da helburu hau?**

Jardueretan euskararen presentzia eta erabilera zaintzen bada, hainbat pertsonari euskarara modu atsegin batean hurbiltzeko aukera ematen zaie eta euskara balio indartsuekin ere lotu dezaten bide eraginkorra izan daiteke.



**Jarduera euskaraz  
denean**



## 2 Jarduera euskaraz denean

### Jarduera helduei begirakoa denean

#### Jarduera euskararen arnagune

Jarduera hauek euskararen arnagune izatea bilatu behar genuke. Hau da: jardueran zehar hizkuntza nagusia euskara izatea, bai egoera gidatuetan, baita harreman informaletan ere. Eta gutxienez, jardueran zehar euskaraz aritu nahi dutenei hori ahalik eta gehien erraztu behar genieke.

##### Horri begira

- Dinamizatzaileak azalpen guztiak euskaraz emango ditu, eta hizkuntza-errutina guztiak ere euskarazkoak izango dira.
- Atal gidatutik kanpo ere, parte hartzaileei euskaraz egingo die.
- Parte-hartzaileen kasuan, beraien esku dago zein hizkuntza erabili nahi duten erabakitzea, baina euskaraz egitera animatuko ditugu, eta beharra eta aukera ikusten badira, euskararen erabilera sustatzen ahaleginduko gara.

##### Horretaz gain

- Jardueretan musika erabiltzen bada edo jartzen bada, euskarazkoak leku duina izatea zaindu behar litzateke.
- Hizkuntza-paisaia zaindu behar da: euskarak gutxienez gaztelaniak adinako lekua izan beharko luke kartel, eskuorri eta abarretan.

**Jarduera euskararen arnagune izatera begira, bi gai hauek zaintzea garrantzitsua da:**

➔ Saioak hizkuntza aldetik ere prestatu

➔ Eroso aritu eta eroso sentiarazi partaideak

## Saioak hizkuntza aldetik ere prestatu

Saioak edukien ikuspegitik prestatzen diren bezala, garrantzitsua da hizkuntza aldetik ere landuta eramatea. Hala, kontuan hartu ondorengo gomendioak:

Saioak komunikazio- eta hizkuntza-kudeaketa aldetik ahalik eta modu egokienean eskaini ahal izateko, behar-beharrezkoa da hizkuntzari dagozkion egokitzapenak aurrez lantzea. Sarri ez da nahikoa euskaraz ongi aritzea: hiztegia, esapideak, baliabide eta estrategiak... erabili eta jakin behar ditugu.

### Ondorioz:

- ✓ Erabili beharreko hitz teknikoak, animoleloak, aginduak... oso barneratuta ez badauzkazu, aldeztu aurretik landu. Saioan zehar eskainiko dituzun azalpenak pentsatu eta aurreikusitu.
- ✓ Eduki edo arau bat azaltzeko garaian, mezua ahalik eta argien esan, azalpena modu ordenatu batean prestatu. Azalpena eskaintzea errazago egingo zaizu.
- ✓ Gorputz-hizkera erabili: mimika, keinuak eta gorputz-hizkera lagungarri izango da euskara-gaitasun handiegia ez dutenei ulermena errazteko.
- ✓ Eguneroko errutina linguistikoak lagungarri izango zaizkizu: erabili beldurrik gabe eta behar izanez gero, sortu berriak.

### Baliabide lagungarriak

<b>Euskarazko musika erabiltzera begira, gune hauetan aukera handia aurkituko duzu</b>	<a href="https://www.badok.eus/">https://www.badok.eus/</a> <a href="https://txantxangorria.eus/">https://txantxangorria.eus/</a>
<b>Hizkuntza-paisaia lantzeko edo idatzizko testuak lantzeko zailtasunak edo zalantzak badituzu</b>	<b>Hiztegiak:</b> <a href="http://www.hiztegia.net/">http://www.hiztegia.net/</a> <b>Itzultzailea:</b> <a href="https://www.euskadi.eus/itzuli/">https://www.euskadi.eus/itzuli/</a>

## Eroso aritu eta eroso sentiarazi partaideak

Euskararen presentzia eta erabilera zaintzeko, irakasleak eroso sentitu behar du eta parte hartzaileek ere horrela sentitu behar dute.

**Saioaren edo lehen saioaren hasieran, aurkezpena egiterakoan, hizkuntza-irizpideak ere azaldu. Hau da:**

- Dinamizatzailearen jokabidea zein izango den azaldu eta ideia batzuk eman deseroso sentitzen badira nola jokatu dezaketen jakin dezaten. Adibidez: zerbait ulertu ez badute lasai galdetzeko esatea; uneren batean azalpenen bat erdaraz eman nahi badute, arazorik ez dagoela azpimarratzea eta abar.



## Jarduera haur eta nerabeei begirakoa denean

### Zer egin behar genuke?

✓ Haurrei eta nerabeei beti euskaraz egin. Ez kontuan hartu beraiek nola erantzuten dizueten, zuek beti euskaraz egin.

✓ Hezitzaile berritsuak izan: banakoekin elkarrizketak sortu eta beraien elkarrizketetan ere parte hartu. Galderak egin, iritziak eskatu, elkarrekin hizketan jarri eta abar. Gure eragin zuzenaren bidez euskara erabil dezaten ahaleginduko gara.

✓ Errefortzu positiboak eman: euskara erabiltzeko ahalegina ikusten dugunean, erraz ari direnean edo akatsekin bada ere lotsarik gabe ari direnean, animatu eta zoriondu.

### Hezitzaile berritsuentzat tresna osagarria: erabili galdera ereduak

	Zer da?	Adibidea
<b>Galdera itxia</b>	Bai edo Ez erantzuna eskatzen dutenak	<b>Galdera:</b> Abestu nahi duzu? <b>Erantzuna:</b> Bai edo Ez
<b>Galdera itxia erantzun luzeekin</b>	Guk emandako eredu bat errepikatzea eskatzen dutenak, baina Bai edo Ez erantzunak baino luzeagoak	<b>Galdera:</b> Abestu nahi duzu edo dantza egin nahi duzu? <b>Erantzuna:</b> Abestu nahi dut edo Dantza egin nahi dut
<b>Galdera irekia</b>	Erantzuna beraiek sortzea eskatzen dutenak	<b>Galdera:</b> Zer egin nahi duzu? <b>Erantzuna:</b> Dantza egin nahi dut, abestu egin nahi dut, ez dakit...

**Haur edo nerabeekin elkarrizketak sortzerakoan, galdera ereduak erabiltzea lagungarria izan daiteke.**

#### Bi aukera:

- 1 Elkarrizketa itxietatik abiatu eta irekietara pasa.
- 2 Elkarrizketa irekietatik abiatu, eta erantzutea ez bazaie erraza egiten, galdera itxi moduan birformulatu eta erantzuten lagundu.

## Zer ez genuke egin behar

◆ **Ez erabili *Egin euskaraz!*** edo antzeko esaldirik.

◆ **Ez zuzendu:** komunikatzen badira, balio du. Ez da garrantzitsuegia tarte horietan euskara zuzena erabiltzea: asko eta gustura erabiltzen badute, hobetuko dute, baina ez badute erabiltzen, ez dute inoiz hobetuko. Hori bai, zerbait adierazteko laguntza eskatzen badizuete edo laguntza behar dutela ikusten baduzue, eman. Laguntzea komenigarri ikusten baduzue, baliabideak eskainiz lagundu (Pasatu ura. Ura ematea nahi duzu? Bai, eman ura, mesedez). Baina ez zuzendu.

◆ Ez kargu hartu euskaraz egiten ez dutelako, **ez errudun sentiarazi.**

◆ **Zergatik ez dira estrategia horiek erabili behar?**

- **Nahiko normala da haurrek gaztelaniarako joera hartzea.** Askoren etxeko hizkuntza gaztelania da eta erraztasun eta aberastasun handiagoa dute gaztelaniarekin. Gainera, inguruneak (auzoak, hiriak...) nagusiki gaztelania eskaintzen die. Beraz, normaltzat hartu daiteke joera hori. Gu denon zeregina da euskara asko erabil dezaten laguntzea.

- **Euskararekin harreman handia eta positiboa izatea nahi dugu.** Horrelako estrategiekin ez dugu lortzen harremana handitzea, eta, gainera, harreman hori negatiboa da. Gure eragina handiagoa edo txikiagoa izan, positiboa izatea lortu behar dugu.

◆ **Eta kontuan izan, hezitzaileen artean euskaraz egin.**

Haurrek zuek gaztelaniaz (tarteka bada ere) egiten duzuela sumatzen badute, zuen sinesgarritasun guztia galduko duzue.





**Jarduera ez denean  
euskaraz**

## 3 Jarduera ez denean euskaraz

### Euskarak ere izan dezala lekua

Jarduera euskaraz ez bada ere, hizkuntzari leku bat ematen saiatu gaitzke eta gauza sinpleekin lortu dezakegu hori.

#### Adibidez:

➡ **Hizkuntza-paisaia:** Kartela, eskuorriak, banatzen zaien materiala eta abar. Horietan guztietan euskarak izan dezala gutxienez gaztelaniak duen lekua.

➡ **Musika:** Saioan zehar musika jartzen badugu, euskarak ere izan dezala leku duina. Jardueraren ezaugarrien arabera hau errazagoa edo zailagoa izango da, baina ziur aurkituko ditugula gauza egokiak.

➡ **Agurrak:** Saio-hasierako eta amaierako agurrak euskaraz izan daitezke.

➡ **Hizkuntza-errutinak:** Hainbat hizkuntza-errutina euskaraz izan daitezke. Jarduera bakoitzak bere errutina propioak izaten ditu, baina jarduera gehienetan ohikoak izaten dira. Gainera, gehienetan esaldi laburrak eta hainbatetan oso ezagunak izaten dira. Adibidez: zenbakiak (1-2-3-4-5-6...), aginduak (eseri, altxa, geldi...), banakoei egiten ari direnari buruzko galderak (zer moduz?, laguntza behar?...), animoak (oso ondo, primeran, segi horrela, bikain...). Gure jardueretan horiek zein diren zerrendatu dezakegu eta:

➡ **Gurekin harremana euskaraz izan daitekeela adierazi:** saioaren hasieran jarduera ez dela euskaraz izango gogorarazi (horrela aukeratu dutelako), baina nahi duenak gurekin euskaraz egin dezaketela azaldu. Modu horretan, euskaraz gustura egingo luketenei atea irekitzen diegu modu erosoan gurekin euskaraz egiten hasteko.

- ▶ Euskaraz erabili hasieratik.
- ▶ Euskaraz eta erdaraz, bietara, erabiltzen hasi. Eta eroso sentitzen garen neurrian, euskaraz soilik erabili.

## Favorecer la presencia y el uso del euskera en las actividades del proyecto Vitoria-Gasteiz Ciudad Educadora

Las últimas décadas Vitoria-Gasteiz ha avanzado mucho hacia el bilingüismo. Cada vez más personas saben euskera y el uso es cada vez mayor en muchos ámbitos. Hoy día la mitad de las personas que viven en Álava entienden euskera y la proporción es mayor en el caso de las personas jóvenes: entre las menores de 35 años, 8 de cada 10 personas como mínimo lo entienden.

Es importante adaptar a esta realidad la oferta de actividades educativas del proyecto Vitoria-Gasteiz Ciudad Educadora y tener en cuenta que, desde el mismo, se puede ayudar a que las personas participantes vivan este proceso y esta realidad de un modo positivo y enriquecedor.

Podemos favorecer y fomentar la presencia del euskera en la actividad aunque la persona encargada de la dinamización no sepa euskera o sepa poco. Nuestra actitud puede ayudar en ese sentido, así como tener en cuenta las siguientes propuestas.





## A tener en cuenta:

- ➔ **Paisaje lingüístico:** procurad que el euskera tenga una presencia similar en los elementos escritos que se utilicen durante la actividad (carteles, trípticos, hojas informativas, etc.).
  - ➔ **Música:** si utilizamos música durante al actividad, incluid canciones en euskera. Fácilmente encontraremos temas adecuados.
  - ➔ **Saludos:** animaros a utilizar en euskera los saludos del comienzo y final de la actividad.
  - ➔ **Rutinas lingüísticas:** muchas de las rutinas lingüísticas pueden ser en euskera. Intentad encontrar la más adecuada. La mayoría de las veces son palabras o frases breves que se repiten con asiduidad. Por ejemplo: números (1-2-3-4-5-6...), órdenes (sentaros-eseri; levantaros-altxa; escuchad-entzun...), preguntas a las personas participantes sobre la acción que estén realizando (¿Qué tal?-Zer moduz?; ¿Necesitas ayuda?- Laguntza behar?...), ánimos (muy bien-oso ondo; sigue así-segi horrela; genial-bikain...). Podemos hacer una lista de las rutinas habituales en nuestra actividad, y, a continuación:
    - ▶ Traducirlas al euskera.
    - ▶ Elegir dos o tres y empezar a utilizarlas.
    - ▶ En la medida que nos vamos acostumbrando, incluir más rutinas
- 
- ➔ **Si sabemos un poco de euskera, pero no lo suficiente** como para dinamizar la actividad, podéis animar a quienes lo saben a utilizarlo al hablarnos. Si no entendemos alguna conversación, se lo haremos saber. Además, podemos utilizar el euskera que sabemos en la medida que nos sintamos a gusto.
  - ➔ **Si no sabemos euskera o sabemos muy poco** animad a los que saben euskera a utilizarlo entre ellas y ellos.

